

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko otsaila

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak % 2,5 gehitu dira 2025eko otsailean, eta % 30,2 apartamentu turistikoetan

Aterpetxe turistikoetan 11.302 sarrera erregistratu dira, aurreko urteko otsailean baino % 39,3 gehiago

Eustatek landutako datuen arabera, **2025eko otsailean** % 2,5 igo zen Euskal AEko **landa-ostatueta** sarrera-kopurua, aurreko urteko hil beraren aldean. Urte arteko igoera horrekin, otsailean guztira 5.984 sarrera izan ziren. Ostatu-gau kopurua, ordea, % 3,3 jaitsi da urte artean 2025eko otsailean, eta 11.797 ostatu-gau izan dira hilabete osoan.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Otsaila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	2024/02	2025/02	p.p. *	2025/02	p.p. *
EUSKAL AE	5.984	2,5	11.797	-3,3	1,97	2,09	12,6	-0,3	16,5	0,6
Estatukoak	5.158	0,9	9.781	-4,1	1,90	2,00	-	-	-	-
Atzerritarrak	826	13,8	2.016	1,2	2,44	2,74	-	-	-	-
Araba/Álava	1.038	16,2	2.371	39,1	2,28	1,91	10,0	2,8	14,4	5,2
Estatukoak	931	23,5	1.874	49,3	2,01	1,66	-	-	-	-
Atzerritarrak	107	-23,0	497	10,7	4,64	3,23	-	-	-	-
Bizkaia	1.353	-0,1	2.687	1,0	1,99	1,96	9,9	-0,1	13,3	0,6
Estatukoak	1.227	-0,6	2.391	-2,6	1,95	1,99	-	-	-	-
Atzerritarrak	126	4,1	296	44,4	2,35	1,69	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.593	0,1	6.739	-14,0	1,88	2,18	15,8	-2,1	19,9	-1,8
Estatukoak	3.000	-3,9	5.516	-15,1	1,84	2,08	-	-	-	-
Atzerritarrak	593	27,3	1.223	-8,6	2,06	2,87	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Martxoaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko otsailean Euskal AEko landa-ostatueta erregistratutako sarreren % 86,2 estatukoak izan dira, aurreko urteko hil beraren aldean % 0,9 igo ondoren. Estatuko jatorria duten ostatu-gauen kopurua % 4,1 jaitsi da urte batetik bestera, eta 9.781 ostatu-gau izan dira, ostatu-gau guztien % 82,9.

Sarrera kopuruaren urte arteko igoera % 16,2koa izan da Araban. Bizkaian eta Gipuzkoan sarrerak ia ez dira aldatu: % 0,1eko aldaketa negatiboa izan da lehenengoan, eta positiboa bigarrean. Ostatu-gauei dagokienez, Araban % 39,1 gehitu dira, guztira 2.371 izanik. Bizkaian % 1,0 egin dute gora (2.687 gau), eta Gipuzkoan, berriz, % 14,0 egin dute behera (6.739 gau, 2025eko otsailean).

Euskal AEko mota horretako establezimenduetan batez besteko egonaldia 1,97 egunekoa izan da otsailean, 2024ko hilabete berean izandako 2,09 eguneko batez besteko egonaldiaren azpitik. Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste igarotzen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEko egonaldiaren iraupen osoari.

Plazen arabera neurtutako okupazio-maila urte arteko ehuneko 0,3 puntu jaitsi da, % 12,6an kokatuz. Gelen arabera neurtuta, aldiz, 0,6 puntuko igoera izan ondoren, % 16,5ekoa izan da.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko otsailean 12.866 sarrera izan dira guztira, eta 46.689 ostatu-gau. Aurreko urteko otsailaren aldean, sarrerak % 30,2 gehitu dira eta ostatu-gauak % 18,0.

Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten pean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Otsaila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	2024/02	2025/02	p.p. *	2025/02	p.p. *
EUSKAL AE	12.866	30,2	46.689	18,0	3,63	4,00	31,3	1,1	58,6	0,1
Estatukoak	9.524	36,4	31.555	18,4	3,31	3,82	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.342	15,2	15.134	17,3	4,53	4,45	-	-	-	-
Araba/Álava	398	-27,5	7.222	2,1	18,16	12,89	25,1	1,3	70,5	-1,7
Estatukoak	365	-29,1	4.643	-2,4	12,73	9,25	-	-	-	-
Atzeritarrak	33	-4,4	2.579	11,5	28,00	28,00	-	-	-	-
Bizkaia	9.047	29,6	21.326	34,9	2,36	2,26	30,2	2,9	43,4	5,4
Estatukoak	6.827	41,6	14.888	42,3	2,18	2,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.220	2,8	6.438	20,5	2,90	2,47	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.422	45,3	18.142	8,8	5,30	7,08	36,5	-2,2	71,5	-2,1
Estatukoak	2.333	41,4	12.025	5,2	5,16	6,93	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.089	54,3	6.117	16,7	5,62	7,43	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Martxoaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Apartamentu turistikoetan sarrera guztien % 74,0 eta ostatu-gauen % 67,6 estatuko jatorria duten bisitariei dagozkie, urte arteko % 36,4ko eta % 18,4ko hazkundeak izan ondoren, hurrenez hurren.

Mota horretako establezimenduen batez besteko egonaldia 3,63 egunekoa izan da 2025eko otsailean, 2024ko otsailean baino txikiagoa, orduan 4,00 egunekoa izan baitzen.

Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia 2,36 egunekoa izan da Bizkaian 2025eko otsailean, 5,30ekoa Gipuzkoan eta 18,16koa Araban.

Euskal AEko plazen okupazio-maila % 31,3koa izan da, 2024ko otsailarekin alderatuta ehuneko 1,1 puntu gehiago. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila ehuneko 0,1 puntu hazi ondoren, % 58,6an kokatu da.

Azkenik, **aterpetxe turistikoetan, 2025eko otsailean** 11.302 sarrera eta 20.221 ostatu-gau izan dira. Aurreko urteko otsailaren aldean, guztirako horiek % 39,3ko igoera izan dute sarreraren kasuan eta % 19,1ekoa ostatu-gauetan.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Otsaila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	m/m-12 (%)	2025/02	2024/02	2025/02	p.p.
EUSKAL AE	11.302	39,3	20.221	19,1	1,79	2,09	25,4	4,5
Estatukoak	5.982	64,9	9.740	38,9	1,63	1,93	-	-
Atzeritarrak	5.320	18,5	10.481	5,2	1,97	2,22	-	-
Araba/Álava	420	33,7	485	-8,0	1,16	1,68	11,9	-1,2
Estatukoak	420	41,6	485	-2,3	1,16	1,67	-	-
Atzeritarrak							-	-
Bizkaia	6.407	34,4	12.049	7,6	1,88	2,35	31,4	5,3
Estatukoak	3.386	52,2	5.706	24,8	1,69	2,05	-	-
Atzeritarrak	3.021	18,8	6.343	-4,2	2,10	2,60	-	-
Gipuzkoa	4.476	47,6	7.687	46,4	1,72	1,73	20,7	5,3
Estatukoak	2.177	97,0	3.549	82,7	1,63	1,76	-	-
Atzeritarrak	2.299	19,3	4.137	25,0	1,80	1,72	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Martxoaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako batez besteko egonaldia 1,79 egunekoa izan da otsailean, eta 2024ko otsailean, berriz, 2,09 egunekoa izan zen. Okupazio-maila % 25,4koa izan da, aurreko urteko hil berean baino 4,5 puntu handiagoa.

Informazio-oharra

2025eko otsailean, landa-ostatuaren ETHren erantzun-tasa % **98,5**koa izan da, apartamentu turistikoena % **93,1**koa eta aterpetxe turistikoena % **95,0**koa.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62